



## Ametsekin bueltan!

**Gero bat Gugan\_2030** hezkuntza eraldaketa prozesuak aurrera jarraitzen du San Fermin Ikastolan. Joan den ikasturtean prozesu honetan parte hartzeko lehen ekimena burutu genuen, familiei, langileei zein ikasleei haien ekarpenak eta proposamenak egiteko lan taldeak eskainiz. Dozenaka lagunek parte hartu zuten eztabaida taldeetan eta oso emankorrak eta interesgarriak izan ziren.

COVID-19ak eragindako osasun krisialdiarengatik, ordea, hainbat pertsona amesteko taldeetan parte hartzeko aukerarik gabe geratu ziren. Hori dela eta, urrian zehar familiei eta beste profesionaleri berriz biltzeko aukera eskaini zitzaion, gure ikastolan aurrera eramaten ari garen prozesu garrantzitsu honetan parte har zezaten.

Aurrekoetan bezalaxe, saio emankorrak izan ziren, bakoitzak bere arlotik ekarpen oso interesgarriak eginez. Eskerrik asko denoi zuen parte hartzeagatik! Laster eza-gutuko duzue, zuek eta ikastola osotzen dugun guztiok, amets horien bilduma.

## Volvemos a soñar

El proceso de transformación educativa Gero bat Gugan\_2030 continúa su andadura en San Fermin Ikastola. La primera iniciativa para participar en este proceso durante el pasado curso fue la de ofrecer una serie de grupos de trabajo en los que familias, profesionales y alumnado pudieran hacer sus propuestas y aportaciones. Decenas de personas participaron en los grupos de discusión y fueron muy fructíferos e interesantes.

Sin embargo, debido a la crisis de salud causada por la COVID-19, muchas personas se quedaron sin la oportunidad de participar en estos grupos que organizamos para soñar con la ikastola del futuro. Por ello, durante el mes de octubre, varias familias y profesionales tuvieron la oportunidad de reunirse y participar en este importante proceso que estamos llevando a cabo en la ikastola.

En la misma línea que las celebradas durante el pasado curso, las sesiones de participación fueron fructíferas y cada cual desde su ámbito hizo contribuciones muy interesantes al proceso. ¡Gracias a todos y todas por participar! Pronto descubriréis cuál es la colección de sueños que hemos recabado.